



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2019ko urria · 357. alea

TOKIKOM



GABA BELTZA
ARIMA BERRITURIK



PIL-PILEAN 357

2019ko urria

Azaleko argazkiaren egilea:
Arkaitz Arana.

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan**
Eider Unamuno Gandiaga
 - 6 **Begira** Korta baserria
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** Alejandro Rodriguez
Herri Krosa
 - 18 **Erreportajea** Gaztañerre
 - 22 **Kirola** Errugbia eta hockeya
 - 24 **Kultura** Cuentos de Calipso eta
Ines Osinaga
 - 25 **Gure artistak** Egoitza
 - 26 **Historia** Otolaneko etxea
 - 28 **Sakonean** Gaba beltza
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak,
oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Jokin Oregi
(Xa)loaren amebak
 - 16 **Gutunak** Ohiana Laskurain
*Gaztañerre partehartzaile eta ez
baztertzaille*
 - 16 **Hausmarketa** Kataluniako egoera
 - 17 **Zir(r)ika** P.G. *Gure ohitura beltzak*
 - 17 **Puntua** Sara Carrasco
Kosmopolita



**Pil-pilean herri
komunikabidea**

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

(Xa)loaren ametsak



JOKIN OREGI

Garai likidoetan bizi omen gara. Solidoa den edozer arbuiazen dugu, zama eramangaitza balitz bezala, aingura astuna, zeinak gauden tokitik mugitzea galarazten digun. Baina nago ez dakigula zehatz-mehatz mugitu horrek zer esan nahi duen; edo zerbait hobearen bila abiatzea; edo ihes egitearekin konformatzea. Egungo 5Gko errealitate konplexu hau deskribatzeko esan genezake zappingaren garaian bizi garela. Zerbait gustuko ez dugunean botoia zanpatu eta listo, kanalez aldatu. Eta han ere ez baduzu gustukorik aurkitzen arazorik ez, botoiari berriro eman eta aurrera. Etengabeko bilaketa batean, etengabeko ihes batean, aspalditik ikasia dugun arren ihes betea ez dela zilegi. Erabatekoa, esan nahi da. Kanal kopurua ez delako infinitua, edo krudelago esanda: dagokigun denbora ez delako infinitua. .

Aukera biak aintzat hartuz, balirudike bigarren mailako pertsonaia jokatzerara behartzen gaituen errelatotik ihes egin nahi dugula, protagonista epiko izango garen errelatoaren bila gabiltzalarik.

Kolektibitateari ere baliagarri dakioke deskribapena baina ezberdintasun nabarmen batekin: kolektiboaz ari garenean, gizarteaz, herriaz, denbora luzatu egiten da; pertsona bakarra nekez helduko da ehun urte betetzera; herri batek milaka urte iraun ditzake.

Igerian egiteko trebeziarik ez dugunontzat garai likidoetan murgilduta gabiltzala entzuteak sekulako izu-ikara eragiten digu. Horrexegatik akaso, xalotasunez jokatzea besterik ez zaigu geratzen, itoko ez bagara.

Xalotasun horretatik galdera sorta: Nork sinistarazi digu bigarren mailako pertsonaia garela? Nork erabaki du zer den protagonista izatea? Noiz ahaztu genuen munduko aberatsena jakintsua dela? Noiz emango dizkigute bankuek jakituria kredituak? Eta azkena: Noiz egingo dugu topa edalontzi bete likidoz?"

**NORK SINISTARAZI
DIGU BIGARREN
MAILAKO
PERTSONAIK
GARELA?**

Eider Unamuno Gandiaga

ODONTOLOGIA FUNTZIONALEAN, OKLUSIOAN ETA POSTUROLOGIAN ADITUA

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Eider Unamuno (Soraluze, 1979) Gertu Osasun Zentroko zuzendaria da. Odontologia funtzionalean, oklusioan eta posturologian aditua da. Eta zera nabarmentzen du berak gidatzen duen osasun zentroan: ahoa tratatzeko pazientearen gorputz osoari behatzen eta erreparatzen diotela. Artikuluak ere publikatu izan ditu zentzu berean.

Egia da gaitz kroniko asko arindu edo osatu ahal ditugula ahoko osasuna zainduta? Bai. Ikusi behar dena da gaitz kroniko horien jatorria ahoan dagoen ala ez. Ahoan badago, konpon dezakegu, bestela ez. Baina uste baino gehiagotan egoten da ahoan gaixotasunaren jatorria. Horrela den ala ez jakiteko, testa egiten dugu gure kontsultan.

Ipini adibide bat, mesedez. Alde bakarreko mastekazioa dagoenean edo ahoaren alde bat bestea baino gehiago erabiltzen denean, jateko erabiltzen ditugun muskulu horiek garatuago egoten dira, eta sorbaldako minak, bizkarrekoak edo baita eskoleosia ere sor daitezke, alde batetik tiraka gabiltzalako uneoro. Horrez aparte, kirolarietan lesio gehiago azal daitezke. Erraz ulertzeko beste adibide bat urdaileko arazoak dira, ahoa sistema digestiboko lehen atea delako, eta jatekoa ondo txikitzeko gai ez garenean sor daitezke haizeak, bihotzerreak... eta migrainak, bertigoak eta beste ere bai.

Kirolarietan lesioak azal daitezke? Alde bakarretik mastekatzen denean, alde horretako gorputz erdia gorago dago eta gorputzaren pisua beste aldean jartzen da. Eskumatik jaten badute, kirolariek ezkerreko hankan izaten dizute lesioak. Kontsultan ariketa batzuek eginarazten dizkiegu, zuzentzeko.

Badiozu beti albo berera begira lo egitea ez dela batere ona; zergatik? Batez ere hazten dauden umeetan. Orduak pasatzen ditugu lotan eta goiko masailhezurra konprimitzen egotearen parekoa delako. Horrek ekar ditzake hozkada gurutzatuak.

Egia al da helduok orekaren zati bat berreskuratu dezakegula ahoa zainduta? Ahoari esaten zaio perturbedore handia dela, ahoko informazioa jasotzen duen nerbio batengatik (Nerbio

Trigeminoa). Nerbio hori gorputzeko egitura askotara ailegatzen da, eta hori alteratuta badago, informazio okerra helaraziko die gainerako atalei.

Tratamendu multi-disziplinarra defendatzen duzue; zer da hori? Gorputzeko edozein ataletan gertatzen den gauza batek eragina dauka gorputz osoan, gorputza bat delako. Dena da bat. Hortaz, guk defendatzen duguna da, adibidez, paziente batek oinetan plantillak behar baditu, ahoan aparatoa behar badu eta begietan betaurrekoak, halakoetan ikusi behar dela zein den gorputzari kalterik handiena egiten dion gaitza, eta hortik hasi behar dela tratatzen. Tatramenduaren denbora murrizten eta tratamendu ahalik eta eraginkorrenak ematen ahalegintzen gara.

Zuena moduko mezuak, baina, ez dira oso ezagunak... Izan ere, ahaztu egin zaigu gorputza bat eta osoa dela. Esaterako, auto batek arazoa badu gurpiletan, ulertzen dugu horrek eragina izan dezakeela, adibidez, ejean. Aldiz, gorputzari dagokionez, ahaztuta dugu ikuspegi orokor hori. Adibidez, orkatila bihurritu baduzu eta ezin bazara ondo ibili, gerriraino ailegatuko zaizu laster mina. Baina egia da unibertsitatean ere ez digutela ikuspegi orokor hori erakusten.

Horregatik argitaratu dituzu artikuluek? Non? Sare sozialetan idazten hasi ondoren deitu zidaten. Orain arte AS Dental Science-n, ABCn, El Paisen hiru aldiz eta Mujer y Salud aldizkarian azaldu naiz. Eta laster beste batzuetan ere azalduko naiz. **Gomendio orokorren bat emango zenuke?** Umeei begira hainbat helaraziko nituzke: titia emateko ahal edo nahi beste, hori da ahorako gimnasiarik onena; jan dezatela hasieratik erdi solido, eta eurei laga diezaietela eskuekin jaten; lurtean ibil daitezela, mugimendu librearekin; lo egiteko orduan, aldatzen joatea alde batera edo bestera, eta haien arnasa zaintzea, sudurretik hartu behar dute. Eta zela ez, mastekatzeko bi aldeak erabiltzen dituztela ziurtatzea. Alergikoek, asmatikoek... eta arnasa gaizki hartzen dutenek alde bakarretik mastekatzen dute. Oro har, ahalik eta elikagai gogorrenak jateko esango nuke; gaur egun, dieta oso biguna da eta.



Bizitza partea zutik

ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Manuela, Patxi, Andres, Maria, Juan, Jose, Ezozi, Markos, Juan Cruz, Maria Luisa... Zenbat izen, zenbat pertsona, zenbat lan, zenbat izerdi, zenbat gozamen, zenbat bizipen ... Zenbat historia. Sarri azpimarratu izan da Euskal Herrian etxeek eta zehazkiago baserriek izan duten pisua; baserriak izan direlako familia bereko belaunaldi askoren bizitoki eta, aldi berean, lantegi eta bizibide. Zoritxarreko gau hartan, suak Korta baserriaren zatirik handiena erre zuen. Kolpe gogorra izan da Kortakoentzat, baita San Andresko auzotarrentzat ere, eta galera handia denontzat. Zorionez, suak ez du dena erre. Bizitza partea zutik gelditu da Kortakoen eta auzotarren oroitzapen eta bizipenekin batera. Beraz, Korta bizirik dago.







HHIPko hainbat ikasle eskolan, Amaia Argarate irakaslearekin.

Murrizketak EPA-HHIn

Jaurlaritzak lehenasuna eman die ikasketa arautuei Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroetan (EPAn); ondorioz, ikastetxe horren eragin-eremuan dauden bi zentrok bakarrik dituzte ikasgai ez-arautuak

Aldaketa nabarmenarekin abiatu dute ikasturtea pertsona helduen heziketarako ikastetxeek (EPA-HHIP), tartean Soraluzekoak.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzak abuztuan dekretuz jakinarazi zien, aurrerantzean, HHIPko zentroetan lehenasuna izango zutela ikasketa arautuek, hau da, hezkuntza ofizialarekin lotutakoek: Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduek eta ziklo formatiboetarako eta unibertsitateko sarbidea prestatzeko ikasketek eta atzerriarrentzako euskarak eta espainolak.

Araudi horren ondorio zuzena izan da araututa ez dauden ikasgaiak (informatika, ingelesa,

frantsesa, euskara, Euskal Herriko artea...) murrizketa drastikoa; dekretuak dio ikasgai mota horiek eskaintza akademiko osoaren orduen %5a bakarrik izan daitezkeela. Eusko Jaurlaritzak argudiatu duenez, arautu gabeko ikasketak egiteko badaude bestelako aukerak, hizkuntza eskoletara joatea, adibidez.

Ikasle gehien ez arautuetan

Kontua da ez-araututako ikasgaiak erakarri dutela historikoki HHIPra ikasle kopururik handiena. Adibidez, iaz, 277 ikasle ibili ziren arautu gabeko ikasgaiak lantzen eta 132, berriz, araututakoetan. Aurten, Soraluzeko HHIPri

dagokion eragin-eremuan (Soraluzetik Oñatiraino) Antzuolako eta Oñatiko zentroetan bakarrik eskaintzen dituzte ikasketa ez arautuak, zentro bakoitzean talde bakarrari, gainera.

Matrikulazioa ia erdira jaitsi da

Bada, egoera horrek ezinegona eragin du hainbat erabiltzailearen artean. Roman Olaizolak, Soraluzeko HHIP zentrotako irakasle eta arduradunak adierazi du: "Orain dela 3-4 urte hasi zen administrazioa murrizketekin; Soraluzen frantsesa desagertu zen, adibidez. Horrez gain, ikasketa ez arautuaren jasotzaileak ziren ikasketekiko berezko interesa zutenak, eta ez titulua ateratzeagatik zetozenak".

Besteak beste, matrikulazioan ere igarri da aldaketa. 234 ikasle matrikulatu dira Soraluzetik Oñatirainoko ikastetxeetan: 230 araututako eskaintzan eta 34 gainerakoan. Orain arte, 400 bat ikasle izan dituzte urtero.

Lanbiderekiko kezka

Bestalde, HHIPko langileei bestelako ezinegona ere sortu zaie azken urteotan: "Lanbide hainbat ikastaro eskaintzen dabil akademien bitartez, berez, ikasgai berberak HHIPn, hau da, zentro publikoetan, eskaini daitezkeenean. Eta gure ikasle potentzial asko Lanbideren ikastaroak aukeratzen dituzte, nolabaiteko esperantza dutelako ikastaroen bultzatzaile Lanbide izanda. Galdera da: ez da posible Lanbide sistema publikora bidaltzea ikasleak? Gaia Udaleko Hezkuntza Batzordera eramango dugu. Dagoeneko Soraluzen horrelako ikastaro bat ematen dabilta, baina ez gure sistema publikoaren bitartez" azaldu du Roman Olaizolak.

Indarkeria matxista salatzeako ekimenak

Zinema, antzerkia, musika eta elkarretaratzea izango dira, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta



Indarkeria matxista salatzeako iaz egin zuten elkarretaratzea.

Azaroaren 7an hasi eta azaroaren 25era bitartean, Sorluzeko Udaleko Parekidetasun Batzordeak lau ekitaldiz osatutako egitaraua prestatu du Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira.

Elkarretaratzea

Horien artean, nabarmentzekoa da Ines Osinaga (Gose taldekoa, besteak beste) musikari arrasatear ezagunak Alutik izenburua duen musika saioa eskainiko duela azaroaren 17an, domeka, 12:30etan, Herri Antzokian.

Hilabete hasieran, pelikula batekin ekingo diete Azaroaren 25ari dagozkion ekitaldiei: Celia Ricok zuzendutako *Viaje al cuarto de una madre* filma eskainiko

dute azaroaren 7an, 21:00etan, Herri Antzokian.

Bertso-antzerki ikuskizuna ere izango da aukeran. Ane Labaka eta Beatriz Egizabalek Erradikalak ginen saioa eskainiko dute azaroaren 24an, domeka, 19:00etan, Herri Antzokian.

Eta egitaraua borobiltzeko, azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, indarkeria mota hori salatzeako elkarretaratzea egingo da Plaza Berrian.

Zortzi hildako

2019an, Euskal Herrian, zazpi emakume eta ume bat hil dituzte gizonetzkoek urte hasieratik. Hain justu, iaz hil zituzten beste emakume hil dituzte urtea bukatzeko oraindik bi hilabete falta direnean.

Wim Hof metodoa taldean

Neguan indartsu egon nahi? Galdera horren erantzuna baduela dio Andoni Callesek: "Gaixotzeko gogorik ez duenak aukeran du horretan oso lagungarria den metodoa praktikatzeara: Wim Hof. Arnasketen bitartez gure gorputzeko kimika guztia aldatzeko gai da metodo hori". Izan ere, Wim Hof metodoa praktikatzen buru-belarri dihardu berak, eta orain berarekin batera praktikatzeko gonbita egin nahi die herrikiideei. Callesen asmoa taldea sortzea da, zapatueta Wim Hof metodoak bere baitan dituen arnasketak, meditazioa eta ur hotzetako bainuak elkarrekin praktikatzeko. Hala ere, eta bainuei dagokienez, Callesek azpimarratu du azken horiek ez direla derrigorrezkoak. Gonbita eginga bada, taldeko kide izan nahi duenak honako telefono zenbakiaren bitartez helarazi dezake interesa: 639 63 22 08.

Gaztañerreko azken batzarra


Datorren urriaren 29an, martitzena, egingo dute aurtengo Gaztañerre azoka antolatzeako azkeneko batzarra. Hitzordua 19:00etan udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, eta bertara deituta daude, bereziki, azokan parte hartuko duten baserritarrak eta artisauak. Asmoa da, batik bat, azokako postuen antolaketa erabakitzea.

Preso adinduak etxeratzeko eskaera

Domekan bizikletaz zeharkatuko dituzte Elgoibartik Oñatirainoko 30 kilometroak, euskal preso adinduak aska ditzaten eskatzen

Etzi, domeka, Elgoibarren hasi (Udaletxe Plazan, 10:00etan) eta Oñatin (Foruen Plazan 13:00) bukatuko den bizikleta martxa antolatuta du Sare Herritarrak. Bertan parte hartuko duten soraluzetarrak 09:00etan elkartuko dira Zubi Nagusian Elgoibarrera joateko; bestela, martxa Soraluzetik pasatzen denean (10:30ean) batzeko aukera ere izango da.

Martxaren bitartez, euskal preso adinduak etxera ditzaten eskatuko dute, alegia, legeak dioena bete dezatela. Izan ere, legeak baldintzapeko askatasunerako eskubidea aitortzen die 70 urtetik gorako presoiei. Eta hain justu, Debabarrenean zein Debagoienean 70 urteak gainditzen dituzten preso bana dago: 76 urte ditu Sebas



Arantxi Plazaola eta Iraultz Arluziaga.

Etханizek (Elgoibar-Soraluze) eta 73, berriz, Joseba Arregik (Oñati).

Gauzak horrela, Saretik salatu dute bieie ezarritako espetxe politika mendekuan oinarritzen dela; oro har, “salbuespen neurriek indarrean jarraitzen”

dutela, eta “espetxe sistemak ezarritako bidea egiteko aukerak eten” egiten dizkietela.

Senideak ere nekez

Horrekin batera, gogora ekarri dute presoan adinak haien senideei ere eragiten diela:

“Adinean gora egiten duten senideek espetxean ehunka kilometrotara urrundua duten familiartekoa ikusteko aukera galdu dezakete adinak dakartzan zailtasunak medio, distantzia luzeak egiteko eragozpen fisikoak direla eta”.

Sebas Etханizi dagokionez, zigorraren hiru laurdenak beteta dituen arren, zigor osoa betetzera kondenatuta dagoela salatu dute, eta 2024an, 81 urterekin geratuko litzatekeela aske “denon artean espetxe-politika hau aldatzen ez badugu”. Gaur egun Villabonako (Asturias) kartzelan dago, “etxetik 330 kilometrorra”.

Joseba Arregi oñatiarra ere 81 urterekin geratuko litzateke aske, 2028an. Frantzian betetako zigorraren batuketa aplikatuta kalean beharko lukeela salatu dute.

Abstentzioak esangura handia izango du azaroaren 10eko hauteskundeetan

2.193 soraluzetarrek dute botoa emateko eskubidea azaroaren 10eko hauteskundeetan. Bost hauteskunde mahaiak osatzear daude (balizko alegazioak aztertzea falta da) eta azaroaren 1etik 8ra izango da kanpaina.

Propagandarik nahi ez

Apirilaren 28an egin ziren Espainiako Kongresua eta

Senatua osatzeko azken hauteskundeak. Soraluzen, EH Bilduk eskuratu zituen boto gehien: 642 boto (%30,23); oso gertu izan zuen EAJ 610 botorekin (%28,72). Hirugarren kokatu zen PSE-EE 396 botorekin (%18,64) eta Podemos izan zen laugarren, 275 botorekin (%12,95). Abstentzioa, berriz, %27,12koa izan zen.

Bada, hain justu, oraingo deialdian abstentzioari begira egongo dira asko, herritarrek alderdi politikoei gobernua osatzeko izan duten gaitasun ezagatik gogaituta daudela erakutsi dute eta.

Asperdura horren erakusle da, esaterako, Euskal Herrian 50.000 lagunek etxean hautets propagandarik ez jasotzeko eskatu izana; Soraluzen 40 lagun inguruk egin dute hori.

"Esperantzarako bidaia da 'Patria'"

AITOR GABILONDO ALEA MEDIako ARDURADUNA

Irailean erakutsi zituzten 'Patria' telesailaren lehen irudiak, Donostiako Zinemaldian. Aitor Gabilondo produktoreak dioenez, "txalo asko izan ziren, baina batez ere emozio handia. Ez zuen inor epel laga" lehen erakustaldi horrek. Telesailari buruzko xehetasun gehiago ere kontatu ditu Alea Mediako arduradunak.

Zein puntutan dago telesaila?

Azken ukituak ematen zabilzate ala muntatzeko asko falta da oraindik?

Muntatze fasean gaude. Oraindik badaukagu lana, baina aurreikusitako denborak betetzen gabiltza.

Zelako itxura dauka?

Oso itxura ona dauka, baina ni beti naiz zuhurra. Ez zait gustatzen kanpai bueltarik jotzea. Oraingoan ondo doala bakarrik esan nezake.

Hainbatek badiote erabateko arrakasta eskuratuko duen telesaila izango dela...

Hori espero dut!

Donostian erakutsitako lehen irudi horiek bezain besteko gogorra izango da?

"TELESAIL ONA IZATEA GUSTATUKO LITZAIKETA ETA PENSARAZTEA LORTZEN BADU, HOBE"



Aitor Gabilondo. ALEA MEDIA

Bai, zertarako ukatu. Baina Donostiako aurkezpenean esan nuen modura, argirako bidaia da, esperantzarakoa. Ez luke zentzurik izango horrela ez balitz. Ez dut Patria egin kaka nahasteko, guztiz kontrakorako baizik.

Zer lortzea gustatuko litzaizuke telesailarekin landutako gaia kontuan hartuta?

Lehenengo eta behin telesail ona izatea gustatuko litzaizuke eta gainera, pentsaraztea lortzen badu, askoz hobe.

Bada estreinaldirako datarik?

2020an estreinatuko dela dakit, baina oraindik ez dakit data zehatzik.

Besterik gaineratu nahiko bazenu...

Beste behin eskerrak eman nahiko nizkieke Soraluzeko eta Elgoibarko agintariei eta bizilagunei emandako harrerarengatik. Eta eskerrik asko, baita ere, gure presentzia arbuia zutenei, beti errespetuz egin zutelako.

0,6ko igoera orokorra zergetan

Abuztuko Kontsumo Prezio Indizearen arabera igoera aplikatuko zaie 2020an udalerrian ordaindu beharreko zergei. Bestela esanda, oro har, 0,6ko igoera aplikatuko zaie soraluzetarren zergei, salbuespenak salbuespen.

Etxe hutsak, hondakinak...

Hain justu, salbuespen horietako bat da etxebizitza hutsei %75eko erretegia aplikatzen segituko dietela.

Beste salbuespen bat hondakinen zerbitzuaren tasak izango duen igoera da: %2,6, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak ezarritakoarekin bat eginez.

Horrekin batera, taxiaren prezioak Agitaxek, Gipuzkoako taxilarien elkarteak, erabakitakoaren arabera igoera izango du.

Eta azkenik, 25 urte baino gehiago dituzten ibilgailuek ere ordaindu beharko dute dagokien zerga, orain arte ez bezala.

Odol ateratzea azaroaren 22an

Soraluzeko Odol Emaileen elkarteak jakinarazi du azaroan tokatzen dela hurrengo odol ateratzea Soraluzen. Normalean hilaren amaierako azken barikuan egiten dituzte ateratzeak, baina azaroan astebete lehenago, hilaren 22an, etorriko dira elkartekoak odola ateratzera. Emaileek Itxaropenara jo beharko dute, 18:30etik 20:30era.

Jolasen bitartez eskubideak aldarri

Azaroaren 20a Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna izango da; aurten, gainera, itunak 30 urte beteko ditu

"Haur eta nerabeak eskubideen subjektu dira, ez bakarrik babesteko objektu soilak, beraien iritzia, beraien hitza, nahitaezkoa da dagozkien erabakiak hartzeko orduan". Horixe du abiapuntu 1959ko azaroren 20an Nazio Batuen Erakundearen egindako aldarrikapenak. 1989an ituna sinatu zuten nazioarteko herrialdeek "historiako adostasun handienarekin". Hitzarmen hartan 54 eskubide jaso zituzten, mundu guztiko umeei aitortu zizkietenak.



Umeak iazko Haurren Eguneako tailerretan.

"Guztiok egin dezakegun zerbait"

Egun horrekin bat eginez, Soraluzen hirugarren urtez antolatuko dituzte umeei eta gazteei zuzendutako jarduerak eta jolasak azaroaren 20rako.

Hala jakinarazi du bertako Haur eta Gazteria Sailak. Inor atzean utzi barik da egun horren aurtengo leloa.

Izan ere, Udalak ere haur eta nerabeen eskubideak aldarrikatu nahi ditu: "Ez dira rollo politikoak; ez dira besteonak baino eskubide txikiagoak (...) Guztiok egin dezakegu zerbait umeen eta gazteen eskubideen alde. 30. urteurren hau une aproposa da munduko haur eta gazte guztien eskubideak bermatzeko egiten diren ahaleginak birplanteatzeko".

Zirkulazioa betikora, astelehenean

Kiroldegiko obrako zamalan gehienak bukatu dituztenez, astelehenean, 18:00etan, zirkulazioa berriro ere Errabal kaletik bideratuko dute.

Alkatearen esanetan martxa onean doaz kiroldegiko obrak. Artzamendi enpresakoek datorren astean solairu berriaren egitura metalikoa ipintzen amaituko dutela aurreikusten dute, eta horren ondoren, alboko paretak ixteko xaflak iritsi ahala joango dira haiek ipintzen,

Gauzak horrela, datorren astelehenetik aurrera ibilgailuen zirkulazioa ohiko bideetatik bideratuko dute.



Solairu berriko egitura metalikoa.

Bestela esanda, astelehenean, 18:00etatik aurrera Errabal kalea zabalduko dute.

Ondorioz, goiko parteko (Estaziño aldeko) errepideak berriro ere noranzko bakarra izango du eta bertako semaforoak erretiratuko dituzte. Besteak beste, autobusak ohiko geltokietan geratuko dira: Zubi Nagusian eta Estaziñoan. Zubi Nagusiko markesina berria gertu dago estreinatzeko.

Etete puntualak

Hori bai, alkateak ohartarazi duenez, litekeena da etorkizunean, puntualki, Errabalek doan errepidea itxi behar izatea, obrarako zamalan gehiago egiteko. Etete motzak izango direla jakinarazi du.

INTERIORISTA
AINHOA LETE

ERREFORMAK

ZANGITU
BARNE
DISEINUA

- Zure beharretara egokitutako distribuzioak
- Etxebizitza eta lokal komertzialen proiektuak, aurrekontuak eta obra
- Koloreak, texturak, tarimak, azulejoak, oihalak...
Material egokienak aukeratzen lagunduko dizugu

Telesforo Aranzadi 2 · Bergara
 zangitu barne diseinua

ainhoaleta@yahoo.com
 635 731 268 · 943 760 869

BERTSO JAIALDIA

Azaroak 29, ostirala, 20.00etan, Herriko Antzokian



Uxue Alberdi **Maider Arregi** **Julio Soto** **Etxahun Lekue** **Maite Berriozabal**
 Gai-jartzailea


Antolatzailea: **Bertso eskola** Leguntzaileak: **PIL-PILEAN** **SOZIALIZEN URSULA**

"Errepikatzeko gogoz"

TESTUA JOKIN MARTINEZ

ARGAZKIAK: UBANE MADERA ETA AITZIBER MAYO

Alejandro Rodriguez Herri Krosak irudi polit askoak laga dizkigu urrian. Egunaren balorazioa egiteko eskatu diegu antolatzaileei, Soraluze Mugituz ekimenekoei: "Bigarren aldia izan da eta estreinaldiko esperientzia errepikatzea zen asmoa, zentzu horretan pozik gaude. Beste behin, saiatu gara herri giroa, berrerabilpena eta birziklapena kirolari lotzen; eta gainera, adin guztietako pertsonak elkartu dira herri krosarengatik. Horrek bestelako kirol ekintzetatik apur bat desberdintzen du gurea. Halakoak normalean helduendako izaten dira; kasu honetan, berriz, umeak eta gazteak elkarrekin kirola egiten egoteak bestelako balio bat ematen dio. Oso irudi politak ikusi ditugu, gainera eguraldi onak lagunduta. Pozik gaude eta esperientzia errepikatzeko gogoz".





GUTUNAK

Gaztañerre partehartzaile eta ez baztertzaille

OHIANA LASKURAIN

Lehenik eta behin, Pil-pileaneko irakurleei agur bero bat luzatu nahiko nieke eta Pil-pileaneko lan taldeari eskerrak eman gure iritziak partekatze horrelako aukera emateagatik. Eskutitz hau idazten dut aurreko alean atal honetan argitaratutako eskutitzari erantzuteko. Argi utzi nahi dut iritzi guztiak errespetatzen ditudala, nahiz eta ez konpartitu edo bat ez etorri. Nik Gaztañerre azokan parte hartu izan dut eta aurrean ere parte hartuko dut, harro gainera. Umetatik erakutsi izan didate bertakoa eta geurea errespetatzen eta maitatzen. Umetatik ikusi dut zein gogorra

den baserriarren bizitza, jai eta aste lanean. Badira hogeitaka urte Soraluzen gaztañerre azoka antolatzen hasi zela. Helburua, egun bakar batez bada ere, bertako produktu, ganadu eta artisauek urte osoko lana herriari erakustea delarik. Gaur egun folklore eta festa huts deritzozun egun horretarako bakoitzak daukan onena kaleratzea, Baina gehien mindu nauena, aipaturiko bazterkeria eta jendea alde batera uztea izan da, zalantzarik gabe. Udaletxean, Gaztañerre antolatze bileran irekian, denentzat ateak zabalik zirela egindakoan, aipatu zen azokan saltzen jartzen diren produktuak zubian saltzeak ez zeukala zentzu handirik. Ez dut uste asko eskatzea izango denik, urtean behin bada ere, jendea Erregetxera erakarri nahi

izatea beste batzuek baztertzearen edo beste batzuei jateko aukera kentzearekin lotzea justua denik. Nik urte guztian konpartitzen dut lana hemengoak ez direnekin eta horrek ez dit inongo arazorik suposatzen. Denok dakigu egun bakar batean ezinezkoa dela gure baserriek pairatzen duten egoera aldatzea. Egunero aldatu beharko genituzkeela kontsumo ohiturak, lan handia daukagula egiteko, baina azaroaren 9an, hurbil gaitezen Erregetxera eta gozatu deigun gure baserriak, artisauek eta egoiliarren lanak, bakoitzak bere aletxo ipiniaraz. Han ikusiko garelakoan.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Kataluniako egoera

Kataluniako buruzagiaren kontrako sententzia argitaratu ondoren, bero-bero dago tenperatura. Han bizi diren bi soraluzetarrekin eta hemen bizi diren bi katalandarrekin izan gara.



ERIKA PASENAU
SORALUZEN BIZI DEN
KATALUNIARRA

"Bihotza apurtuta dut. Ezin dira maila berean ipini istiluak (larriak izanda ere) eta milaka eta milaka lagun martxa baketsuak. Medioek eta politikariek dena manipulatu dute. Agindutakoa ez dute bete. Nire lagun ez independentistek zalantza dute, egondako errepresioarengatik".



HASIER UGARTE
BARTZELONAN BIZI DEN
SORALUZETARRA

"Orain 6-7 urte hasi zuten mugimendua politikariek eta herritarrek elkarrekin. Jendeak lan handia egin du eta Madrilgo erantzunek frustrazioa eragin dute. Espero dut erantzuna aldatuko dutela Madrildik. Jende askok desberdin pentsatzen du eta hori kontuan hartu behar dute".

ZIR(R)IKA

P.G. GURE OHITURA BELTZAK



.....eta hauek ere, gure ohitura
eta amets asko bezala
txikitu genituen, eta ostean
plastikozkoak erosi.

PUNTUA



SARA CARRASCO

Kosmopolita

Oraindik ez da pasatu urtebete Plaentxia ezagutu nuenetik, oso ondo gogoratzen dut lan elkarrizketa bat izan zela herri honetara ekarri ninduen aitzakia. Aldez aurretik ez nuen herriaren berririk, ia ez nekien non zegoen ere. Pentsa, hori azpeitiarra izanik.

Oso ondo gogoratzen dut kotxez nola heldu nintzen abenduko gau hartan, eta ondo gogoan dut aho zabalik nola egin nuen aparkalekurainoko bidea. Herriaren egitura, estruktura, hezetasuna, kotxeak eta oinezkoak kaleetan batera... Momentu batez "ni honea ez nator lanea" pentsatu nuen. Baina badu herri honek begi bistadizo batean antzeman ezin daitekeen edertasunik ere: herri izaera mantentzen duen herri kuxkuxeroa eta anitza da, eta horrek bere txikitasunean handi egiten du Plaentxia. Hainbat kultura, hizkuntza, janzkera, azal kolore zein ohitura elkartzen dituen herria eta merkataritza txikia baino ez duena. Hori aberastasuna zuena!

Gaur egun, eta zalantzarik ez daukat: lan elkarrizketa hura herri hau ezagutzera ekarri ninduen aitzakia baino ez da izan. Horrela izan beharko zuen. Plaentxi herri kosmopolita da, eta nik mundua ezagutzea dut gustuko.



CRISTINA JACAS

SORALUZEN BIZI DEN
KATALUNIARRA

"Harro nago ikusita nola dabilzan aurrera egiten, nola erantzuten dioten Espainiako Gobernuari. Herriaren indarra erakutsi nahi dute. Adibidez, aireportua ixtea erabaki zuten eta lortu zuten. Sententziarekin ez daude ados eta ezin dutela nahi dutena egin adierazi nahi diete".



NEREA MENDIA

BARTZELONAN BIZI DEN
SORALUZETARRA

"Nora helduko garen, horrek beldurtzen nau. Muturreko egoerak gogortuz doaz. Espainiako gobernutik egindakoa sinestezina da askorentzat; niretzat onartezina, askatasuna kentzen dabilza edozeini. Hortik hasita, noraino ailegatuko gara? Badirudi adarra jotzen dabilzala".



lazko azokaren ikuspegi orokorra.

Bost baserri gehiago izango dira azokan

Azken hilabeteotan zenbait baserritarrek eta Udalak ahalegin berezia egin dute azokan baserritar gehiagok parte har dezaten. Azkenean, bost baserri gehiago izango dira aurtengo azokan. Euretako bi lehen aldiz: Itsasoi eta Osuma Azpi.

Testua: **Egoitz Unamuno**. Argazkiak: **Ubane Madera eta Fernan Oregi**.

Azaroaren 9an egingo da Gaztañerre azoka, hogeitalaugarrena, eta parte hartzea izango da edizio honetako nobedade nagusia. Izan ere, azkenengo urteotan, azokan parte hartzen zuten baserritarren kopuruak beherantz egin izan du, baina, aurtun, joera horri buelta ematea lortu dute eta ia ez egon ez ziren bost baserri izango dira bertan: Argateburu, Etxebarri, Aldaso Osuma Azpi eta Itxaso. Azken biek lehen aldiz parte hartuko dute azokan.



San Andresko baserritarrak ia azokan jarri zuten postuan..

Sanandrestarren bultzada

Iaz San Andresko hainbat baserritarrek Udalari eskatu zioten ahalegina egin zezala baserritarren parte hartzea indartzeko eta eskari horri erantzunez, azken hilabeteotan Udalak “atez ate” jardun du baserritarrei azokan parte hartzeko gonbitea eginez. Oier Cerrejon sanandrestarraren esanetan, emaitza positiboa da, “beheranzko joerari buelta ematea lortu” delako. Iritzi berekoa da Iker Aldazabal alkatea ere, eta etorkizunean bide beretik jarraitzeko asmoa adierazi du.

Parrila eta sagardo lehiaketa

Iaz hasitako bideari jarraituz, aurtun ere, sanandrestarrek jan edana banatzeko postua jarriko dute eta bertan eskainiko dituzte salda, txorixoa, sahieski errea eta danbolinean erretako gaztainak. Horixe izango da azokaguneko jangune bakarra, aurtun ez baita talo posturik jarriko.

Bestalde, bigarrenez, herriko sagardo lehiaketa antolatuko dute. Aurtun, bost parte hartzaile izango dira: Argate, Arkaitz Arana, Agirrebeiztegi, Araneta eta Barrenetxe. Herritarrek postuan probatu ahalko dituzte sagardoak eta botua emanaz erabakiko dute zeinek jantziko duen txapela.

Omenaldia adineko baserritarrei

Eguerdian, ohiko ekitaldia egingo da azokagunean eta barazki postuen lehiaketako sariak banatzearekin batera adineko bi baserritar omenduko dituzte. Aurtun, Ernizketa baserriko Lander Lakuesta Gorosabel (95 urte) eta Zeletako Maria Ariznabarreta Txurruka (94 urte) omenduko dituzte. Horrez gain, gogoan izango dute aurtengo abuztuan zendu zen Guenetxetxo baserriko Mertxe Balzola ere, edizio guztietan barazki postua jarri izan zuena.

Eguerdiko ekitaldiaren ostean, baserritarrek Armendin bazkalduko dute Aitor Mendiluze eta Agin Laburu bertsolariek eta Mendotz eta Bixkai trikitilariak lagun duta.

**EGUERDIKO
EKITALDIAN ERNIZKETA
BASERRIKO LANDER
ETA ZELETAKO MARIA
OMENDUKO DITUZTE**



Itxasne bere ortuan porru saila jorratzen.

"Nahiago dut ekologikoan lan egitea eta bezeroek ere bai"

ITXASNE ELIZBURU NEKAZARIA

Itsasoiko alabak orain dela bi urte erabaki zuen bere ortua jartzea eta barazkiak saltzeari ekin zion "ia konturatu barik". Gaur egun, jatetxe eta dendaren batera saltzeaz gain, barazki-otarrak ere banatzen ditu. Aurten, "auzokoek konbentzituta", postua jarriko du Gaztañerreko azokan.

Baserrian hazi, gaztetan kalera eta berriz baserrira. Kanean beti jendearekin zaude eta hemen neure airera nabil beti. Nire etxea eraiki nuen baserrian eta ortuan hasi nintzen lanean. Orain ez naiz baserritik atera ere egiten. Baserriko lana gogorra da, baina nik ez dut soldatapeko lan arrunt moduan ikusten, bizitza da, eta gustura egiten dut. Neuk aukeratu dut eta neure esku dago.

Noiz hasi zinen ortuan?

Serio, hogeita hamar bat urterekin. Ia konturatu barik hasi nintzen barazkiak saltzen. Gero, lagun batzuek proposatu zidaten otarrak egiten hasia eta azkenean engantxatu egin naiz. Oraintxe dihardut paperak egiten, agrariakoak eta abar.

Zenbat denbora eskaintzen diozu egunean?

Pare bat ordu. Eta landare asko sartu behar dudanean, gehiago; goiz edo arratsalde osoa.

Erabaki duzu ortuan pozoirik ez botatzea eta modu ekologikoan lantzea.

Bai. Pentsatzen dut naturala hobea dela eta errazagoa egiten zait, baina horrek badu kostu bat. Aurten, esaterako, ez dut batere tomaterik jaso. Aurten, euli zuria, txindurri gorria... Denak



Etxeetara banatzen duen otarra eskuan.

"MOMENTUAN, JATETXE BATERA, DENDA BATERA ETA SEI ETXEETARA EROATEN DITUT PRODUKTUAK"

"NIK NAHIAGO DUT EKOLOGIKOA ETA NIRE BEZEROEK ERE BAI. LASAIAGO JATEN DUT"

"NIRE USTEZ SARITU BEHARREKOA EGUNEROKO LANA DA ETA EZ EGUN BAKARREAN POSTU POLITA JARTZEA"

etorri dira. Hala ere, nik nahiago dut ekologikoan jarraitzea eta nire bezeroek ere bai. Badakit produktua naturala dela eta lasaiago jaten dut.

Zerk ematen du arazorik gehien?

Azari kirtena jaten dion bolatxo bat sortzen zaio. Udan, azkonarrak hirurehun letxuga atera zizkidan! Konbibentzia... Kar kar kar! Orain, hesi elektrikoa ipini dut eta ez da sartzen.

Nora saltzen duzu?

Orain jatetxe batera, kaleko denda batera eta sei etxetara eroaten ditut produktuak. Ahalegintzen naiz sasoian sasoiko barazkiak ekoizten eta salmenta zuzenaren bidez saltzen. Ortua handitu dut, baina eskaria handiagoa da eskaintzen dudana baino. Gainera, baserrian inoiz ez dakizu uzta zelakoa izango den.

Posible ikusten duzu ortutik bizitzea?

Bai, otarra gehiago salduta, baina horretarako ortua handitu eta askoz lan gehiago egin behar.

Zela daroa jendeak sasoian sasoikoa kontsumitzea?

Jende nagusiarekin errazagoa da, ohituago daude. Gazteok beti nahi izaten dugu ez dagoena eta dagoenarekin aspertzen gara. Nik errezetak banatzen ditut beste era batzuetara kozinatzeko.

Etxean zela hartu zuten zure erabakia?

Oso ondo. Aitak asko laguntzen dit eta animatzen nau ortu gehiago jartzera.

Asko ikasi duzu gurasoengandik?

Norberak eginda ikasten da gehien.

Zelakoa izan da aurtengo uzta?

Iazkoa baino eskasagoa. Eguraldia hobea izan da, baina gaitz gehiago etorri dira. Horien kontra *vacilus turingensis* erabiltzen dut, Jakoba Errekondok gomendatzen duen moduan. Bere irratsaioa entzuten dut eta bere bloga ere jarraitzen dut (bizibaratzea.eus). Hori bai, den-dena ez diot sinesten, eh!

Aurten, lehen aldiz postua jarriko duzu azokan.

Bai. San Andres auzoan badago talde bat Gaztañerre bultzatzen ari dena eta konbentzitu egin naute. Ni neu ez naiz postuan egongo lan egin behar dudalako. Ipiniko ditugu Itsasoiko barazkiak, gozoak eta lehengusinarengatik.

Zela ikusten duzu azoka?

Jendeak bertako produktua erosten duen egun bakarra da eta guk urte guztian dihardugu lanean. Bestalde, ikusten dut sariekin baserritarren arteko lehia bultzatzen dela eta hori ez zait gustatzen. Baserritar batzuk ez dira azokara joan, baina urteetan bajatu izan dira merkatura. Nire ustez, saritu beharrekoa egunerokoa da eta ez egun bakarrean postu polita jartzea.



Umeak errugbian. FERNAN OREGI

Orain errugbian futbol zelaian

Eguaztenetan 18:30etik 19:30era egiten dituzte errugbiarekin lotutako jarduerak Ezoziko Futbol Zelaian

Soraluzeko Udalak eta Sora Futbol Taldeak azpiegitura erabiltzen laga izanari esker, errugbi-zaleek Ezoziko Futbol Zelaian egin dituzte azken entrenamenduak eta jarduerak.

Futbol zelaira elkarrekin

Hitzorduaren eguna ez da aldatu, eguaztenetan elkartzen dira errugbian jarduteko, baina ordutegia egokitu dute. Hori horrela, orain 18:30etik

19:30era bitartean entrenatzen dira futbol zelaian eta 18:00etan Plaza Zaharrean elkartzen dira elkarrekin bertaratzeko. Hala ere, azpimarratu dute norbere kabuz ere badagoela futbol zelaira igotzerik, atek zabal-zabalik dituzte taldearekin errugbian jokatu nahi duten haur, gazte zein helduentzako.

15-20 bat lagun elkartzen dira

Errugbian jarduteko ekimen aurtengo irailean abiarazi zuen kirol horretan arituak eta adituak diren guraso talde batek, herri osoari zuzendutako ekimen modura. Harrezkero, 15-20 bat lagun elkartzen dira eguazteneko errugbia praktikatzeko. "11 neska-mutiko dira eta gainerakoak helduak. Pozik gaude", esan digu Erika Pasenauk, ekimenaren antolatzaileetako batek.

Jarduerari buruz informazio gehiago nahi izanez gero, bi telefono zenbaki helarazi dituzte: Erika 651 38 98 28 eta Enekoitz 676 89 04 75.

Txuri-Urdin taldeak Onintza Ibartzabal fitxatu du izotzetan jokatzeko

Uztailean kirol klub berria sortu zuten: Marras Irristaketa Taldea. Adinka banatuta, hainbat talde antolatu dituzte adin guztietako irristaketa-zaleekin. Azpi-ekintza modura, txapelketetan aritzeko hockey taldea ere osatu dute. Hain justu, liga azaroaren amaieran hasiko da, horregatik buru-belarri dabilta klubaren

antolakuntza-lanetan.

Jakinarazi dute aurki aurkeztuko dutela taldea herrian.

Txuri-Urdinen fitxaje berria

Bestalde, hockeyarekin jarraituz, Onintza Ibartzabal soraluzetarra fitxatu du Txuri-Urdin taldeak, izotzetan jardun dezan. Oraingoz izotzetarako egokitapena egiten dabil, gero

talde donostiarrarekin Iberdrola ligan jokatzeko. Gainera, horrek Mundialerako atek zabaldu dizkio Onintza Ibartzabali.

Horrez gain, Bergarako Burdinola taldearekin elite mailan sailkatu da Gaztela-Leongo ligan. Are gehiago, 80 ekiporen artean, beraien serieko lehenak geratu ziren. Ibartzabalek, lau golekin, sailkapeneko laugarren postua eskuratu du 130 jokalariren artean, nesken artean bigarrena.

Reiki zerbitzua herrian



Maria Etxabe soraluzetarrak Reiki tratamenduak eskaintzen ditu min fisiko eta emozionalak gainditzen laguntzeko.

“Fisikoki eta emozionalki ondo egoteko bidea”, horixe da Maria Etxabek Reikiaren bitartez bere pazienteei eskaintzen diena. Askotariko min eta gaitzak tratatzen ditu: estresa, gorputzeko minak, lo egiteko arazoak... Aldiz, ez ditu tratatzen bihotzeko arazoak, epilepsia eta hezurretako hausturak.

Energia bideratzeko teknika

Reikia Japonian sortu zen teknika da eta gorputzeko energia (zazpi txakrak) behar bezala bideratzea du helburu. Batez ere, eskuak erabiltzen dira tratamendua bideratzeko eta harriak ere bai. Mariak biak erabiltzen ditu. Bere esanetan, “Reikia medikuntza konbentzionala heltzen ez den lekuetara heltzen da, baina ez da bere ordezkoa, osagarria baizik”.

Hobekuntzak igartzen dira

Lau urte inguru dira Maria Etxabe Reiki tratamenduak eskaintzen hasi zela. Estazioko bere etxean du kontsulta eta gustura dago egin duen bidearekin. “Adin askotako pertsonak etortzen zaizkit, hamalau urtetik hasi eta adineko pertsonak arte. Normalean, probatzen duenak jarraitu egiten du, hobekuntzak igartzen dituelako”.

Hitzordua hartzeko

Mariaren kontsultan hitzordua hartu nahi izanez gero, deitu edo idatzi 699 69 97 95 telefonora.

Testigantzak



Jaione Unanue.

Energia

“Ni bizkarreko min izugarriarekin joan nintzen. Etzanda jarri ninduen, burutik heldu zidan eskuekin, eta gero hanketatik atera zidan energia. Handik egun gutxira mina joan zitzaidan eta pastilak hartzeari ere laga nion. Horrez gain, bizitzarako asko lagundu didaten irizpide batzuk ere eman dizkit .”



Asun Aranda.

Mina kendu

“Deskubrimendu bat izan da. Nik ez nuen sinesten, baina probatzera joan nintzen eta asko lagundu dit. Ni askotan egoten naiz bizkarreko eta belauneko minez eta lehen fisiora astero joaten nintzen. Orain ez dut fisiora joan beharrik izaten ez dudalako minik. Reikiak mina kendu dit eta orain askoz lasaiago nago. ”



'Cuentos de Calipso'-ren hiru idazle: Maria Luisa Blasco, Tere Sousa eta Elena Perez.

'Cuentos de Calipso' liburua laster kalean

12 autorek idatzitako 37 kontakizun laburrez osatutako lana azaroaren 14an aurkeztuko dute Herri Antzokian; salgai ere jarriko dute, 12 euroan

"Harro eta pozik gaude. Lan handia izan da, konpromiso handia eskatzen zuelako. Angelek (Angel Mario Fernandez) izugarrizko lana egin du aditu literario modura, eta baita Elena Perezek ere,

koordinatzaile modura", dio Tere Sousa idazleak. Lan horren emaitza azaroaren 14an aurkeztuko duten *Cuentos de Calipso* liburua da (Herri Antzokian, 19:00etan). 500 ale merkaturatuko dituzte lehen

edizioan eta eskatu ahala plazaratuko dituzte gehiago.

Soraluzen pentsatu, egin eta landutako liburua da *Cuentos de Calipso*, izen bera duen literatura klubeko idazleek bultzatuta: CaLiPSo (Cafe Literario Placencia Soraluze). "2016tik, elkartzten ginenean kide bakoitzak bere kontakizuna irakurtzen zien gainerakoei. Urteotan asko idatzi ditugu. Eta Soraluzekoak ez diren beste autore batzuk ere erakarri ditugu. Bada, guztiak idatzitako kontakizunen aukeraketarekin osatu dugu liburua. Helburua Soraluzen egindako literatura lan eskerga horri ikusgarritasuna ematea da", azaldu du Elena Perezek.

Aniztasuna da, hain justu, liburuaren ezaugarrietako bat: kontakizunak estilo askotarikoak direlako. Eta askotarikoa da ere autoreen jatorria: Soraluze, Arrasate, Granada, Valladolid, Argentina, Mexiko eta Kanariar Uharteak.

Etzekoei begiratuta, *Cuentos de Calipso*-n argitaratuko dituzte Tere Sousaren, Elena Perezen, Maria Luisa Blascoren eta Angel Mario Fernandezek kontakizunetako batzuk.

Ines Osinaga bakarka eta biluzik soinua eta makinak hartuta

Azaroaren 17an, Ines Osinaga musikariak bakarkako emanaldi berezia eskainiko du antzokian: *Alutik*. Bertan, azken urteotan bidelagun izan dituen kantuak eskainiko ditu. "Kontzertu biluziak izango dira, soinua hartu eta bakarka eskainiko ditudanak. Kantuak aitzakia dira beste gauza batzuk kontatzeko".

Arrasatearrak bakarkako bira laburra hasiko du azaroan eta kontzertu kopuru mugatua eskainiko du negua amaitu bitarte. Horietako bat izango da Soraluzekoa.

Hitzordua: Azaroak 17, eguerdiko 12:30ean, antzokian. Kontzertua Udaleko Emakumeen Topaguneak antolatuko du.



Ines Osinaga. ITZIAR BASTARRIKA.

Egoitzan egin eta Azokan saldu



Teresa, Felisa, Tomasa, Lorenza, Marina, Petra, Eusebia, Mari eta Ofelia bi astez aritu dira buru-belarri kotoizko poltsak eta motxilak margotzen.

Halako 200 dotoretuko dituzte. Izan ere, bigarren urtez, Mesedeetako Egoitzako bizilagunek postua ipiniko dute Gaztañerre azokan.

Sukaldaritza, diseinua eta beste

Egoitzako bigarren solairuko aretoan elkartzen dira 9 lagunak lanerako, goizean eta arratsaldean. Gehienetan Oihane Garaitagoitia animazioko arduradun eta psikologoak lagunduta ibiltzen dira, baina baita euren kabuz ere, Garitagoitiak kontatu duenez: "Asmoa Gaztañerre egunera arte margotzen segitzea zen; baina taldea erabat ahaldunduta dago, eurek erabakitzen dute guztia, eta nahi dutenean etortzen

dira. Adibidez, asteburuan ere ibili dira lanean, beraz, oso aurreratuta goaz. Behin poltsak margotuta, plantxatu egingo ditugu, eta gero egoitzako beste talde batek etiketa bereziak ipiniko dizkie. Horren ondoren, poltsen prezioak adostu, eta Gaztañerre egunean eurek dekoratutako postuan jarriko dituzte salgai".

Mesedeetako egoitzako bizilagunek estreinaldia dute margolari lanetan, baina lehenagotik ere badute eskarmentua herriko jardueretan parte hartzen zein artista lanetan. Sukaldaritza lehiaketetan hasi ziren orain dela hiru bat urte, baita sariak eskuratu ere. Boluntario lanak ere egin izan dituzte, Soraluze, Mugituz! ekimenaren eskutik. Aurtengo Marraskilo Tourrean, berriz, mendizaleentzako buffa diseinatu zuten.



1. Margolari-taldea lanean.
2. Teresa eta Felisa margotzen.
3. Marina eta Lorenza lanean.
4. Margotutako motxila bat.
5. Tomasa, Eusebi eta Rashid lanean.

Harremanetarako

943 75 11 36.

Otolaneko etxea

GUTXIENEZ BADIRA HIRU MENDE OTOLANEKO ETXEA ETA ONDOKOAK ERAIKI ZIRELA

Otolaneko etxeak laster erakutsiko du jantzi berria, eraikin osoa eraberritzeko lanak amaitzear daude eta.

Jakinekoa da eraikin hau antzinakoa dela, Sorapedia Soraluzeko Entziklopedia Digitalaren arabera, XVIII. menderako dagoeneko bazituen bizilagunak. Eraikinak Otolaneko etxea edo Intxaurdieta izena du.

"Intxaurrondo tokia esan nahi du. Baltegieta kaleko goi partean dago, erreka aldera. XVIII mende hasieran bertan bizi ziren Andres de Insaurdieta eta Antonio de Insaurdieta, herriko Erret Arma Lantegietan oso aurrean zeudenak (...). Etxe honen alboan dago Iturburu etxea, Arane iturria ondoan daukana".

Zuloagaren grabatua

Sorapediak badu jasota Ignazio Zuloaga margolari ospetsu eibartarrak grabatu bat egin zuela etxeok inspirazio hartuta: "Ignacio Zuloaga eibartarrak (1870-1945) grabatu hau egin zuenean, Puerto (portua) edo Puerto vasco (euskal portua) izendatu zuen.

Enrique Lafuente Ferrarik, Ignacio Zuloagaren ikertzaile amorratuak, aitortu zuen euskal kosta osoa korritu zuela portu honen bila, eta ez zuela topatu; beraz, asmatutakoa behar zuela.

Urteetan inork ez zuen igarri zein zen portu hura, Ramiro



Zuloagaren grabatua, 'Euskal Portua'.

Larrañagak asmatu zuen arte: Deba ibaia, Soraluzeko *malmero* presaren parean, Baltegieta etxeak ikusten direla. Halaxe erakusten dute Juan San Martinen irudiek (Ignacio Zuloaga bezala, eibartarra hau ere).

1975ean Bilboko Artes Gráficas Grijelmo etxeak urteko egutegia egin eta zabaldu zuen Ignacio Zuloagaren lau grabatuekin, horietako bat honako hau.

Bere sasoiaren grabatuaren 75 kopiak egin ziren, Guarro papera erabiliz. Banan banan markatuta daude, zenbakiarekin eta artistaren zigiluarekin".

Pasabidea, ur barik

Grabatu horrek erakusten du, besteak beste, orain dela bi mende Baltegieta etxeen aurrean ere bazegoela



Baltegieta etxeak. Juan San Martin

pasabidea, eta bertatik jaitsi zitekeela ibaira. Ibaian pare bat belauntzi ere marraztu zituen Zuloagak grabatuan.

Aldiz, Juan San Martin eibartarraren argazkiak erakusten du gerora ibaia desbideratu zutela, etxeon aurretik pasaraziz. Ordurako errepeidea etxebizitzaren goiko aldetik pasatzen zen.

Kontuak kontu, urte batzuen ondoren, atzera ere antzinako antolaketara bueltatu zen. Harrezkero pasabidea behetik, errepeidea goitik eta ibairaren ubidea beheheratik pasatzen da.

XVIII. MENDE HASIERAN ANDRES DE INSAURDIETA ETA ANTONIO INSAURDIETA BIZI ZIREN ETXE HARTAN

ELIZPE HORTZ KLINIKA



Zure genakoa hartz klinika, punta puntako teknologietan lan egiten dugua. Cad-Cam sistema berrituzko erabilien dugua.

Elizburu, 3 behea
SOLAZUZE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

Jatuena plazarrera, bertatik bertara



Batzoki

eguneko menua
anduruztasun
karta eta menuak

ogitartekoak eta
harburginak
enbargo bereziak

bestia eta
lagun artako
bestiak

Errezibak: 943 75 20 35



IZKUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Errefernak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289

KLB6

Kalebarren 6
943 67 20 26
Muller-eta-median
modulugilea



ISOLID
ONLINEO
MATRON SCOTCH
VERO MODA

Kontulan

ABOKATUAK

Errenta sarrerak • Administrazioa lanak
Trafikoko burokratia • Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontabilitate/leialtasunak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. euk. 20590 Sorluze
Tel: 943 75 17 82 / Fax 943 75 61 82



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorluze) • 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Soraluzeko
Kooperatiba Elkarteak
150etik ezabak



Arriandegia, janaria,
errepak, etxeko tresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Kalebarren 4
Tel: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00



Etxabe Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Sorluzeko baserrietako produktuetan
- Etxeko tripaki eta txistorrak

Etxaburua 5
teléfono: 943 75 23 75

MENDIZABAL
okindegia

Ogja • Prentsa • Gogorak



Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel: 943 75 13 99

TXURRUKA JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta



www.txurruka.com
Tel: 943 75 15 81

Fanny Mertzeria

Arropak konpontzen ditugu
Santa Ana 22, behea • 688 81 53 92



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
harburginak,
ogitartekoak,
razoiak, pizzak,
gogorak...
Enkarguak egiten dira



Tel: 943 75 17 89

Hortz klinika

Errabal 1
Tel: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48 000 591

27 urteko esperientzia
odontologia, proteziak,
odontopediatria, ortodontia,
inglantzak, estetika...

Katia Guztina
Odontologoa
K.Z. 48 001 541

Zerbitzu radiologiko orokorra (3D):
ekianerria, orto eta telei.



*sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...*

SUMA
basolanak

img. 635 71 34 08



Euskalzaletasunaren alde:



Gaba Beeeltza!

URRIAREN 31KO GAUA "BERTAKO ERARA" OSPATZEKO EKIMENA

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.
ARGAZKIA: ARKAITZ ARANA.

Kalabazak hustu, kandelak piztu... Urriaren 31n, eguena, Gau Beltza edo Animen Gaua ospatuko da Euskal Herrian eta Euskal Herriko Euskaltzaleen Topaguneak ekimena abiatu du euskal tradizioan horren errotua egon den gaua berriz ere 'geure erara' ospatzeko. Pil-pilean euskaltzaleen elkarreak bultzatuta, Sorluzen ere bat egin dute asmo horrekin. Ludotekak, Gaztelekuak eta Musika eskolak hainbat ekintza antolatu dituzte elkarrekin, beldur-gaua ospatzeko.

Miren Gallastegi Kukumixoko koordinatzailearen esanetan, "geurea den tradizioa berrasmatu nahi dugu eta eguneratu, gaztetxoendako erakargarri izango den forman, euskaratik eta euskaraz". Izan ere, azken urteotan, Santu guztien bezperako gauak indar handia hartu du gurean, Estatu Batuetatik inportatutako Halloween ereduaren bidetik.

Euskal tradizioa

Gaubeltza.eus webgunean jasotzen denez, "udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan Europa osoan egin izan dira heriotzarekin lotutako errituak, baita Euskal Herrian ere. Urtearen heriotza, uzta bilketa, hildako senideen oroimena... lotu izan dira barrura begirako



Anima galdu tropela, Plazentzian beldurra zabaltzeko gertu.

Hitzordua

Urriaren 31n, Plaza Berrian (euria bada, Frontoian), arratsaldeko 17:30etik 19:30era.

Osagaiak: Sua eta beldurrezko ipuinak.

Gonbidatuak: ume, guraso eta parte hartu nahi duen edozein.

Antolatzailea: Kukumixo aisialdi taldea.

Formulak

Eskerako proposatzen diren formulak:

Saria ala ziria?

Xanduli, manduli, kikiriki..... eman goxokiak guri!

ariketa horretan eta aldi berean, iluntasuna eta beldurra baliatu izan dira, jolaserako".

Erritu horiek, modu batera edo bestera, ia gaur egunera arte mantendu dira: izara zuriak jantzita ateratzea, kalabazak hustu eta barruan kandelak jarrita ipintzea, arbiei aurpegia marraztea, anima galduen gaineko kontakizun beldugarriak kontatzea... Horiek ez dira berriak, eta bertako ikuspegia galtzeko zorian izan bada ere, azken urteotan, hainbat herritan abiatu dira tradizioa bersortzeko ekimenak: Mutriku, Aretxabaleta, Arrasate, Eibar, Lekeitio, Oiartzun...

Mozorroak eta kantua gertu

Bide horri jarraituz, azken egunotan, herriko gaztetxoek



Herriko beste anima galdu batzuk, beldurra emateko moduko itxurarekin.

Gaba Beltza prestatzen jardun dute Ludotekan eta Gaztelekuan; besteak beste, mozorro tailerrak egin dituzte bertako erara janzten erakusteko. Horretarako nahikoa dira: alkandora zaharra, fraka ilunak, lastozko kapela eta aurpegia izara zuri batekin estaltzea, begi zuloak eta ahoa beltzez margotuta (goiko argazkian agertzen den moduan).

Gainera, kantu bat ere egokitu dute Aitor Ziardegi musikari aretxabaletarrak sortutakoa

baliatuz eta ikasi ere egin dute Domentx Uzin eta Nagore Sanz Musika eskolako irakasleek lagunduta. Datorren astean, kantua bidez grabatu eta mugikorren bidez zabaldu nahi dute herri osoan.

**ALKANDORA ZAHARRA,
PRAKA ILUNAK,
LASTOZKO KAPELA ETA
IZARA ZURIA NAHIKOA
DIRA MOZORROTZEKO**

Kantua

Oilarrak kukurruku
ta astuak arrantza
zeozek aztoratuta
jaiki dira antza (bis)
Arima zuriz bete da
gure Gaba Baltza,
hildakuak ta bizixak
dantza eta dantza! (bis)

Egilea: Aitor Ziardegi
(Aretxabaleta).

Moldaketa: Kukumixo.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Alaiá Martínez Fariñas
Urriaren 31an urtebko bat. Zorionak txikixa!! Patxo haundi bat etxeko guztien partez!



Kristina Gallastegi Goenaga
Urriaren 16an, 46 urte. Zorionak, prexioxa! Kuadrilla



Alexander Gabilondo Lizarralde
Azaroaren 14an, 46 urte. Ederto ospatu, Alex! Kuadrilla



Ugaitz Catalan
Urriaren 17an urtebete gehiago! Zorionak, gizontxo! Zure lagunak



Unax Sudupe Ostolaza
Urriaren 29an, 14 urte. Zorionakkk! Patxo bat familia guztian partez.



Domentx Uzin
Urriaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, musikari! Lagunak



Sugar Ostolaza Lakuesta
Abuztuaren 10ean, 10 urte. Zorionak politxoril Zoragarria zara. Asko maibxe zaitxugu! Aetz, Iraultza eta etxekuen partez.



Ekain Ariznabarreta Jauregi
Zorionak Ekain! Urriaren 19an 7 urte!! Orain bezain jator jarrai dezazun, etxekuen partez muxu potolo bat!!



Nahia eta Eukén
Zorionak Nahia eta Eukén!! Azaroaren 23an eta Urriaren 2an, 13 eta 11 urte. Zorionak!! Muxu handi bat etxekoen partez!!



Carmen Ariznabarreta eta Claudio Unamuno
50 urte ezkontuta. Zorionak! Segi urte askoan elkar maitez.

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Luis Faustino Artolazabal Aldazabal Iñaki Larrañaga Eguren

Jaiotakoak

Macarena Mateo Iglesias
Ibrahim Ahmed Raiyan
Mariam Ahmadi
Haron El Yakoubi

JAIOPERRIAK



Macarena Mateo Iglesias

Irailaren 21ean jaio zen.

OHARRAK

Elkartasun proiekturako gozoak egiteko deia

Misio taldea osatzen dugunok dei egin nahi diegu soraluzetarrei, gozoak prestatu ditzaten Gaztañerre azokan saltzeko. Jasotako dirua Buenos Airesko umeendako zentro bat finantziatzera bideratuko da, baliabiderik barik eta gizartetik baztertzeko arriskuan dauden umeei laguntzen jarrai dezaten. Gozoak azaroaren 8an jasoko ditugu, parroko etxean.

Misio taldea

Blues hotzak jaialdia Soraluzen

Abenduaren 13, 14 eta 15ean.

Antolatzailea: Errabal kultur elkarte.

Laguntzailea: Soraluzeko Udala.


Urte batzuetako etenaren ostean, Udalaren laguntzarekin, berriz ere blues jaialdia antolatuko dugu herrian. Laster informazio gehiago...

ESKELAK

VI. URTEURRENA

Luis Maria Heriz Garmendia

2013ko azaroaren 7an hil zen.



Hizkuntza bat ez da galtzen dakienak ikasten ez duelako, dakienak hitzegiten ez duelako baizik

Etxekoak

X. URTEURRENA

Jesus Mari Jauregi Gabilondo

Zure lagunok ez zaitugu inoiz ahaztuko. Beti gure bihotzean.

Lagunak



LANGILEENTZAKO IKASTAROAK

%100 Subentzionatuak

70 ikastaro baino gehiago webgunean: AUKERATU ZUREA!



IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
Planoen interpretazioa III. Multzoak	25	2019/11/04	SIEMENS OPERATE fresatzeko makina: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2020/01/07
SOLID EDGE II. Multzoak	30	2019/11/11	HEIDENHAIN 530: Programazioa	40	2020/01/27
CAE elementu finituak NX NASTRAN	32	2019/11/18	HEIDENHAIN 530: programazio aurreratua	14	2020/01/27
Autocad	40	2019/11/25	SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: G kodeko programazioa	40	2020/01/27
SOLIDWORKS II. Multzoak	30	2019/11/25	Mantentze lanak eta matxuren zehaztapenak Makinan	16	2019/11/04
NX gainazalak	30	2019/12/02	Hidraulika	24	2019/11/04
CATIA gainazalak	30	2019/12/02	Trantsizioa S7-tik TIA portalera	12	2019/11/04
CAM POWERMILL (5 ardatz 3+2 fresatzeko Makina)	20	2019/11/04	Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa	70	2019/11/11
SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: lagundutako programazioa SHOPMILL	20	2019/11/04	TIA Portal Siemens automata programagarriak 1.maila	40	2019/11/11
SIEMENS Fresaketa: prestaketa eta erabilera	35	2019/11/04	Siemens Step 7 automata programagarriak 2. maila	30	2019/11/19
FANUC fresatzeko makina: prestatzea eta erabiltzea	35	2019/11/04	ABB roboten programazioa 2. maila	28	2019/11/25
Ohiko fresagailua	80	2019/11/06	TIA Portal Siemens automata programagarriak 2. maila	30	2019/12/03
HEIDENHAIN 530: prestaketa eta mekanizazioa	35	2019/11/18	ABB Roboten abiaraztea	8	2019/12/09
SIEMENS: programazio parametrikoa	15	2019/12/02	Neumatika	24	2019/12/09
HEIDENHAIN 530: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2019/12/09	Mekanizatutako produktua egiaztatzea	30	2019/11/04
HEIDENHAIN 530: 3+2 ardatzen programazioa	14	2020/01/07	Kalibrazio plana	16	2019/11/18

IMH · Azkue auzoa 1 · 20870 Elgoibar · 943 74 82 66 · 943 74 41 32 · www.imh.eus · imhformazioa@imh.eus

XXIV. GAZTAÑERRE AZOKA

azaroak 9,
zapatua

- 10:00 Azokaren irekiera: baserriko produktu, artisau salmenta eta ganadu erakusketa
11:15 Txistularien kalejira
12:00 Ekitaldia azokan: dantza saioa, omenaldia, sari banaketa eta bertsolariak
15:00 Herri-babajana karpan (txartelak: Pili-pileanen eta Iratxoan). Ondoren, kantu salo gidatua
19:00 Erromeria Bide Batez taldearekin karpan
22:00 Dj Revolutionary love Gaztetxean

Azaroak 11, astelehena Gaztañerre Eguna
Gaztaina jana eta ospakizuna, Plaentxi Herri ikastetxean

- 17:30 Txorimalo tailerra eta erakusketa karpan (Parrandan Udal Ludoteka)
16:30 Gaztaina jana eta musika, Egoitzan
20:30 Gaztañerre eguneko afaria euskara ikasleekin (AEK eta Pili-pilean)



Kike Amonarriz

“Soraluze euskaldunago.
Emango dugu pauso bat
aurrera?”

Hitzaldia

Azaroak 5, martitzena
19:00
Herri Antzokian

Antolatzailea:



Laguntzaileak:

